

ARNAS INFEKZIO AKUTUAREN (AIA) ZAINTZA

Euskal Autonomia Erkidegoa (EAE)

2023-2024 denboraldia
(2023/10/02tik 2024/09/29ra)

4. astea (2024/01/22-2024/01/28)

Gripe-birusaren zirkulazioak behera egin du berriro aste honetan. COVID-19aren intzidentzia ere jaitsi da, ABSren detekzioak eta bronkiolitis diagnostikoak bezalaxe.


- Lehen Mailako Arretako (LMA) sarean AIA tasa 516,3 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (562,9/100.000 aurreko astean).
- Lehen Mailako Arretan, gripe-sindromearen tasak behera egin du berriro, eta bronkiolitisaren tasak ere.
- Mikrobiologiako laborategira bidalitako 75 lagin jagoleen % 57,3 baieztatu da, SARS-CoV-2 bat (positibotasuna % 1,3), 14 gripe-birus (positibotasuna % 18,7) eta ABS bat (positibotasuna % 1,3) atzeman direlarik.
- Osakidetzako ospitale-sarean AIA larriaren tasa 15,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (21,1/100.000 aurreko astean).
- EAEko Informazio Mikrobiologikoko Sisteman, aste honetan, 265 SARS-CoV-2, 368 gripe-birus eta 87 ABS erregistratu dira.

AIA Lehen Mailako Arretan

Zaintza sindromikoa


Zaintza honen bidez, LMA sareko AIA kasuen tasa estimatzen da Historia Kliniko Elektronikokoan jasotako informazioaren bitartez eta GNS-10 kodeak erabiliz. Aste honetan hautemandako AIAREN intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 516,3 kasukoa izan da (562,9/100.000 aurreko astean). Lurralde historikoka, tasa 400,4/100.000 izan da Araban, 515,2/100.000 Bizkaian eta 571,6/100.000 Gipuzkoan.

AIAREN intzidentzia-tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arreta-sarea. 2023-2024, EAE



Adin-taldearen arabera, AIAREN tasa altuena 0-4 urtekoen adin-taldean eman da 2214,7 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5-14 urtekoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 810,9 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek gora egin dute berriro 15 urtetik beherakoetan eta behera gainontzekoetan.

AIAREN intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Erakunde Sanitario Integratuaren (ESI) araberako intzidentziari dagokionez, tasek behera egin dute ESI guztietan aurreko astearekin alderatuta.


AIAREN intzidentzia-tasak eta tasen arrazoia ESIaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE

ESI	Tasa 4. astea	Tasa 3. astea	Tasen arrazoia (% 95 KT)
Arabako ESI	443,0	477,0	0,93 (0,86-1,00)
Arabar Errioxako ESI	536,8	724,3	0,74 (0,54-1,03)
Barakaldo-Sestaoko ESI	453,0	488,1	0,93 (0,83-1,04)
Barrualde-Galdakaoko ESI	530,0	577,2	0,92 (0,86-0,98)
OSI Bilbo-Basurtuko ESI	546,0	616,2	0,89 (0,83-0,94)
Ezkerral.-Enkart.-Gurutzetako ESI	545,2	622,4	0,88 (0,80-0,96)
Uribeko ESI	421,5	439,0	0,96 (0,88-1,05)
Bidasoako ESI	436,1	562,0	0,78 (0,67-0,89)
Debararrenako ESI	625,0	659,9	0,95 (0,83-1,08)
Debagoienako ESI	426,9	476,9	0,90 (0,76-1,05)
Donostialdeako ESI	565,4	566,7	1,00 (0,94-1,06)
Goierrri-Urola Garaiaiko ESI	621,8	750,3	0,83 (0,74-0,92)
Tolosaldeako ESI	616,1	656,5	0,94 (0,82-1,08)

Gripe-sindromearen tasak behera egin du berriro aste honetan eta 41,1 kasu 100.000 biztanleko balioan kokatu da (54,9/100.000 aurreko astean).

Bronkiolitisaren tasak (2 urtetik beherakoetan) ere behera egin du eta 197,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (266,9/100.000 aurreko astean).


Tasa denboraldiaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Lehen Mailako Arretako sarea. 2023-2024, EAE



Lagin jagoleen diagnostiko mikrobiologikoa

Zaintza honetan, astero, AIaren sintomak dituzten kupo jagoleetako pazienteen artean gutxienez bost kasu hautatzen dira sistematikoki, eta diagnostiko mikrobiologikorako lagin bat hartzen zaie. Aste honetan, AIArako erreferentziako mikrobiologiako laborategian 75 lagin jagole aztertu dira eta horietatik % 57,3 baieztatu dira. SARS-CoV-2 bat, 14 gripe-birus (6 AH1pdm09 eta 8 AH3) eta ABS bat atzeman dira. 12 errinobirus, 9 metapneumobirus eta 9 urtaroko CoV ere detektatu dira.

AIA intzidentzia-tasa LMA n eta sare jagolean detektatutako arnas birus kopurua, aste epidemiologikoen arabera. 2023-2024, EAE



SARS-CoV-2rako positibotasunak behera egin du eta % 1,3an kokatu da (% 8,4 aurreko astean). Gripe-birusaren positibotasunak ere behera egin du eta % 18,7an kokatu da (% 33,7 aurreko astean); baita ABSren positibotasunak ere, % 1,3an geratu baita (% 2,4 aurreko astean). Errinobirusaren positibotasuna % 16,0koa izan da (% 13,3 aurreko astean).


Positibotasunaren ehunekoa mikrobiologiako laborategira bidalitako lagin jagoleetan arnas birus motaren arabera. Sare jagolea. 2023-2024, EAE

	4. astea		3. astea		2023-2024 hasieratik	
	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)	Detek.	Positib. (%)
Influenza	14	18,7	28	33,7	197	20,6
SARS-CoV-2	1	1,3	7	8,4	58	6,1
ABS	1	1,3	2	2,4	83	8,7
Metaneumobirus	9	12,0	5	6,0	27	2,8
Parainfluenza	0	0,0	0	0,0	18	1,9
Adenobirus	3	4,0	3	3,6	24	2,5
Errinobirus	12	16,0	11	13,3	210	21,9
Urtaroko CoV	9	12,0	4	4,8	39	4,1

AIA larria (AIAL) Osakidetzako ospitale-sarean


Zaintza sindromikoa

AIAL (arnas infekzio akutu larria) kasuak Osakidetzako ospitale-sarean artatutako AIaren prozesu klinikoak dira, GNS-10 kodeen bitartez astero Historia Kliniko Elektronikotik eratorritzen direnak. AIAL tasa 15,9 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (21,1/100.000 aurreko astean), 16,0/100.000 emakumeetan eta 15,8/100.000 gizonetan.



Adin-taldearen arabera, AIAL tasa altuena 64 urtetik gorakoen adin-taldean eman da 50,1 kasurekin 100.000 biztanleko, ondoren 5 urtetik beherakoen adin-taldea kokatzen delarik 100.000 biztanleko 15,4 kasurekin. Aurreko astearekin alderatuta, tasek behera egin dute adin-talde guztietan.

AIALren intzidentzia-tasa adin-taldearen eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE




AIAL laginen diagnostiko mikrobiologikoa

Atal honetan, Osakidetzako ospitale-sarean AIAL kasuei egindako analisi biologikoen emaitzak erakusten dira. Gripe-birusaren positibotasunak behera egin berriro eta % 23,1ean kokatu da aste honetan (% 25,9 aurreko astean) eta SARS-CoV-2rena % 7,7ra jaitsi da (% 11,0 aurreko astean). ABSren positibotasuna % 8,2an geratu da (% 9,5 aurreko astean) eta errinobirusarena % 8,6koa izan da.

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko lagin kopurua eta hauen positibotasuna (%) AIAL kasuen laginetan arnas birus motaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, EAE

	4. astea		3. astea		2023-2024 hasieratik	
	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)	Lagin kop.	Positib.(%)
SARS-CoV-2	285	7,7	381	11,0	5139	11,2
Influenza	286	23,1	374	25,9	4813	22,0
ABS	255	8,2	327	9,5	4001	17,6

Mikrobiologiako laborategietan azterturiko AIALen laginen positibotasun portzentaia arnas-birus motaren eta aste epidemiologikoaren arabera. Osakidetzako ospitale-sarea. 2023-2024, CAE



Arnas birusen detekzioak IMSn


Zaintza honetan, Osakidetzako Diagnostiko Biologikoko Sareko mikrobiologiako zerbitzuek zirkuitu jagoletik kanpo jakinarazitako gripe-birusaren eta ABSaren lagin positiboak biltzen dira. Sistema honetan 265 SARS-CoV-2, 368 gripe-birus eta 87 ABS detektatu dira azken astean.

Aste honetan detektatutako 368 gripe-birusetatik, 248 azpitipatu gabeko A motakoak izan dira, 32 A(H3) eta 88 A(H1)pdm09. 2023/40 astetik 5264 detekzio erregistratu dira, 5253 (% 99,8) A motakoak eta 11 (% 0,2) B motakoak. Azpitipatutako A motako 1594 birusetatik, 302 (% 18,9) A(H3) eta 1292 (% 81,1) A(H1)pdm09 izan dira.

2023ko abenduaren 18tik, SARS-CoV-2ren 477 andui sekuentziatu dira Euskadin. JN.1 intereseko aldaera ia bakarra da, sekuentziatutako anduien % 87 biltzen baititu. Beste intereseko lau aldaeren (BA.2.86, EG.5 XBB.1.5 eta XBB.1.16) jarduerak behera egiten jarraitzen dute, eta desagertzeko joera dute.

JN.1 da nagusi mundu osoan. OMEren lau eskualdeek antzeko datuak erakutsi zituzten aldagai horrek 2023ko azken astean izandako jarduerari dagokionez. Oraingoan, JN.1ek arrisku txikia du osasun publikorako.

Asteko SARS-CoV-2, influenza eta ABS detekzio kopurua. IMS. 2023-2024, EAE




COVID-19aren egoera

60 urte edo gehiagoko populazioan, 4. astean, COVID-19aren 7 eguneko intzidentzia-tasa 26,6 kasukoa izan da 100.000 biztanleko (23,7/100.000 aurreko astean); 23,1 gizonetan eta 29,3 emakumeetan.

Osakidetzaren ospitale-egoeraren adierazleetatik lortutako datuen arabera, aste honetan 45 paziente ospitaleratu dira EAEn COVID-19agatik¹ (98 ospitaleratu aurreko astean), 21 gizon eta 24 emakume. Ospitaleratutako pertsonen % 77,8 60 urtetik gorakoa zen.

¹ Txostenaren argitaratze datako behin behineko datuak

COVID-19agatik gertaturiko ospitaleratzeen kopurua eta tasa, aste epidemiologikoaren eta adinaren arabera. 2023-2024, EAE



Urteko 4. astean, COVID-19 15 kasu berri erregistratu dira EAEko adinekoen egoitzetako erabiltzaileen artean (18 aurreko astean). Kasuak dituzten zentro soziosanitario kopurua 15 izan da, aurreko astean baino 3 gutxiago.

Metodologiari eta beste aspektu batzuei buruzko informazio gehiago [Osasun Saileko webgunean](#) eta ondorengo esteka hauetan: [SiVIRA](#) (estatukoa), [Flu News](#) (Europa, gripea), [FluNet](#), (Mundua, gripe), [OPS](#) (Amerika, gripea), [CDC](#) (AEB).

2024ko urtarrilaren 31ean

**Zaintza Epidemiologikoa
Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza**